KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**Z I U R T A T Z E N D O T:**

2013ko apirilaren 22an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

## 3.- **ESKUALDEKO ENPLEGU PLANEKO "INGURUMENEKO PEOIAK GAITZEKO" IKASTAROA EMOTEKO ENPRESEA KONTRATATZEA.**

### Xedea

Eskualdeko Enplegu Planeko "Ingurumeneko Peoiak Gaitzeko" ikastaroa emoteko enpresea kontratatzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2013ko martxoaren 4an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziren eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: HAZI FUNDAZIOA, EHNE - BIZKAIA eta KASAKU, S.COOP enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jakien, 2013ko martxoaren 20an.

Hirugarrena: HAZI FUNDAZIOAK eskaintzea bialdu dau.

### Argudioak

Lehenengoa: Hautagaiak **A** kartazala **"Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena"** aurkeztu dau eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala **"Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa"** eskatutako dokumentuakaz bat datorrela ikusten da**.**

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOA** aurkeztu dau. Proposamena **30.000 eurokoa + BEZ 6.300 eurokoa** da.

Laugarrena: Errekerimentua egin ondoren, dokumentazinoa konpultsatu dau enpreseak.

### Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: **HAZI FUNDAZIOA** enpreseari, “Ingurumeneko Peoiak Gaitzeko” ikastaroa emoteko kontratua **30.000 euro + BEZ 6.300 eurotan** esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deutsut, behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 24an.

ONETSIA
ALKATEA